

altza

Badatoz Larratxoko jaiak

Poltsiko antzerkia

Cañares Kultur Etxeak, Donostiako beste kultur etxeekin batera, Poltsiko Antzerkiaren IV. edizioa antolatu du.

Aurtengoan hiru dira Altzara etorriko diren taldeak, nahiz eta zazpi izan. Donostiara hurbilduko direnak. Legaleon T, Carles Castillo eta Gustavo Perez Corral arituko dira gure auzoko tabernatan.

Hilaren 2an Carles Castillok gaueko 21.00-etan «*Mimosterios y Magiliculas*» lana taularatuko du Santa Barbara tabernan. Bera protagonista nagusia izanik, pertsonaia ugari eta desberdinak aurkeztuko dizkie ikusleei hauen parte hartze zuzena eta inplikazioa eskatuz. Larunbatean, hilak 3, Gustavo Perez Corral «*El*



Larratxoko dorreak jai giroaz bilduko dira hurrengo asteburuan.

altza eta Herrera inguruko auzoguneetan jai nagusien antolaketa

«*ángel caído*» lanarekin hurbilduko da Larratxoko Bikutz tabernara gaueko 23.00etatik aurrera. Lan honetan dantza, musika eta antzerkiak bat egingo dute, Trianako Marife, Luis Eduardo Aute, Con-

biziki nabari da kale giroan. Larratxoko jaiak izango dira lehenbizikoak.

cha Piquer eta hil berri den Lola Floresen musika eredutzat harturik.

Sexualitateari buruzko lehenengo kartel lehiaketan aurkeztuta-

Ostiralerako, hilaren 9rako, pailazoak eta rock kontzertua antolatu dira.

«*Poti, Kiki eta Kiriki*» pailazoak Larratxoko haur liburutegian izango dira arratsaldeko 17.00-etatik aurrera txikien barre eta txaloak jasotzeko asinotan.

Gazteek gauerako rock emanaldi izugarria antolatu dute: «*Discípulos de Dionisio*», «*Señor No*», «*Gurutze Beltzak*» eta «*Kaifas*» taldeak izango ditugu arratsaldeko 21.00etatik aurrera Jose Artetxe plazan.


LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

ARGAZKIA: ROXALI FERNANDEZ

ko lanen erakusketa egingo da ekainaren 5etik 9ra arratsaldeko 17.30etatik 21.00etara. Erakusketa honen antolatzaileak Donostiako Udaleko Gazteri Saileko kale Iezitzaileak dira.

BAQUE KAFEAK ESKEINITAKO

ARGIBIDE KAFEZALEAK



Afrikako lurretan Robusta Kafea (gogorra eta mikatza) hazten da batez ere, baina badira Afrikako herrialde batzuk ia erabat Arabika Kafea (suabea eta usaintsua) hazten dutenak. Esate baterako: ETIOPIA, KENIA, ZANBIA, RUANDA eta BURUNDI. ETIOPIAko Harrar kafe mota eta KENIA MENDIAN hazten den Kafea, Ameriketako Arabika bezain onak dira. BAQUE KAFEAK suabe... suabea



Poz handia ematen digu kafeaz dakigun guztia zure esku jartzeak.